

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Alli kontseilariak harrera egin die gizartean baztertutako pertsonentzako prestakuntza-programa batean laguntzaile diren enpresei

Gizarteratzeko eta laneratzeko taldeek artatutako pertsonak kontratatu dituzte, eta beste berrogeita hamar bati praktikak egiteko aukera eman diete

Martes, 12 de mayo de 2015

Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Alli Foru Gobernuak 31 enpresei eskerrak emateko gaur goizean Nafarroako Jauregian egindako ekitaldiaren buru izan da; [gizarteratzeko eta laneratzeko taldeekin](#) iaz elkarlanean aritutako enpresak dira, bai gizartean baztertutako egoeran zeuden pertsonak kontratatuzko, bai eta beste berrogeita hamar bat pertsonen lan-praktikak egiteko zentro bihurtuz ere.

Tronuaren Aretoan egindako ekitaldian ere Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Oto izan da, Nafarroako oinarrizko gizarte-zerbitzuen ordezkariak eta enpresa laguntzaileetako ordezkariak. Haien ordezkari modura, omenaldian Eroski Kooperatibako Anabel Zariquieguik esku hartu du.

Honako enpresa hauek omendu dira: Luckira Zerbitzuen Agentzia, La Taurina taberna, Molina taberna, El Patio taberna-jatetxea, Barón de Ley, Becam, Belástegui (Izarra taberna-jatetxea), Chivite Upeltegiak, Caprabo, Conforama España, Distrivisual, Embalajes Julián Goñi e Hijos, Eroski Kooperatiba, Exkal, Ferrovial Servicios, Fomento de Construcciones y Contratas, Iruñeko E.Leclerc Hipermerkatua, Bereau landa-hotela, Tximista hotela, Etxalar benta-hotela, Hydra, Irisarri Land, Makro Pamplona, Media Markt, Mercadona, Napar Bideak, Pauma, Soysana, Toys'r'us, Tutti Pasta eta Urdi.



Alli kontseilaria omendutako enpresetako ordezkariekin.

Gizonezkoa, ikasketarik gabekoa eta gizarteratzeko errentaren hartzailea

34 urteko gizonezkoa, Europar Batasuneko herrialde batetik etorritakoa, ikasketarik gabekoa, gizarteratzeko errentaren hartzailea eta urtebete baino gehiagoz lanik egin gabekoa. Horixe da, hain zuzen, iaz gizarteratzeko eta laneratzeko taldeek artatutako 431 pertsona gehienen profila. Artatutako emakumeei dagokienez, haien ezaugarriak gizonezkoan oso antzekoak dira, baina horri gaineratu behar zaio erdiak indarkeria-episodioak jasan izan dituela.

Beren ibilbidea amaitu zuten pertsonen % 35 inguruk enplegu bat topatu zuten lan-merkatuan; % 17k lan bat izan zuten babestutako enplegu sozialeko programen bidez edo zuzeneko enplegu aktiboaren bidez, eta %30ak laneko prestakuntza nahiz gaitasuneko ekintzak osatu zuten.

Lan-merkatuan sartutako pertsonen artean, 43 gaur goizean omendutako 31 enpresek kontratatu zituzten. Gainera, beste berrogeita hamar batek praktikak egin zituzten erakunde horietan.

Nafarroako Gobernuak gizarteratzeko eta laneratzeko lau talde ditu (EISOL), eta haiek beren jarduera ondorengo lekuetako gizarte-zerbitzuen arloetan garatzen dute: Lizarra; Tafalla; Tuteria; Iruñerria, eta Iruñeko ipar-ekialdea eta ipar-mendebaldea.

Talde horiek bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen banakako laguntza ematen diete, beren trebetasun pertsonalak eta lanbide-gaitasunak hobetzeko asmoz lan-merkaturatzea erraztu ahal izateko. Prozesu pertsonalizatu hori lan aurreko edo laneko gaitasuneko taldeko jarduerekin osatzen da. Beste erakunde batzuekin ere sentsibilizazio-jarduerak egiten dituzte, eta beren eragin-eremuko enprekin laneko bitartekotza nahiz lankidetzako prozesuak sustatzen.



Anabel Zariquieguiren agerraldia, Alli kontseilari eta Oto zuzendari nagusia begira dituela.